



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Kontzertu erraldoietara doazen askok gero ez dute zuzeneko musikarik kontsumitzen”

Pedro Elias Igartua | Folkia

Billbon jaio zen eta Igorren egiten du lan, ingeles irakasle. Euskal Herrian ez dago berarena bezalako beste fonotekarik. Prentsan eta irratan asko idatzi eta esandakoa dugu, musikari buruz beti.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Iñigo Azkona

Egia al da milioi bat disko daukazula etxean?

Lehen egia zen, orain kopurua bikoiztu egin da, baina kantitatea baino kalitatea du ardatz bilduma horrek.

Kolekzionismoa ez da gaixotasun mota bat?

Obsesioa zen binilo garaian. Lehen diskoak objektu ederrak ziren. CDak, berriz, ia mikroskopioz aztertu behar dira. Gaur edozein kantu entzuteko mila aukera daude sarean eta diskoak desagertzear daude. Baina kontuan hartu blues garaian diskoetxeek sarritan ez zutela masterrik gordetzen. 60ko hamarkadan sortu ziren arbelezko disko zaleei esker gaur Blind Willie McTell, Charley Patton edota Son House entzun ditzakegu CDetan.

Homer Simpsonek uste du rock'n'roll-a 1974an ailegatu zela “perfekziora”. Ados al zaude?

Homer Simpson gazteegia da. Hogeitabat urte atzera jo beharko luke. Memphiseko Sam Phillipsen Sun estudioetan Otso Ulukaria, Ike Turner, Johnny Cash, Jerry Lee Lewis eta Elvis bera, ia konturatu barik, rock'n'rollaren gailurrera heldu ziren, dena asmatu zuten.

Egun, ordea, ematen du entzuten den musika arinaren %99 kaka-mokordoa dela...

Eta lehen ere bai. Kakalardoak betidanik egon dira. Egizu proba: NME edo Melody Makerrean agertzen ziren “hit” zerrendak hartu, 60koak, 70ekoak, 80koak... eta kaka-mokordoz josita ziren.

Txomin Barullo irratan aritu zinen, orain Bilbo Hirian zaude... Marjinala al da herri musika ona?

Lehengo egunean Getxon Shemekia Copelandek aitortu zigun AEBetako irratieta bluesa nekez entzuten zela. Modak aldakorak dira baina maite dugun musikak sortzen duen zirrara inoiz ez da marjinala.

Zerbait egin daiteke euskal ikasleek hain heavyak izaten jarrai ez dezaten?

Ez pentsa, oso musika ezberdinak jartzen dizkiet ikasgelan, eta erantzuna sarritan ezustekoa da. Beste aldetik, adinez Led Zeppelinen semea naiz eta heavyarekin ere oso gustura nago, mugikorrean orain AC/DCren *You shook me all night long* daukat erantzuteko soinua.

Ingelesa irakasten duzu Arratiako Institutuan. *Speaker's Corner*-en hitz egitea bezain esker onekoa al da?

Hobe ordaindutakoa, baina uste dut antzekoa dela. Bai Hyde Park Cornerrean, bai institutuan, erotasun pixka bat behar-beharrezkoa da, sano mantentzeko behintzat.

Hamazazpi urteko neska-mutilen musika gustuak aurrerakoak ala atzerakoak dira orain?

Denetarik dago. Arratiako ikasleen musika maila nahiko altua da. Askok musika jotzen dute eta euskal artistak, bai gaurkoak bai atzokoak, ondo ezagutzen dituzte. Nazioartean beste kontu bat da. Rock'n'rollak 50 urte du, gutxienez, eta batzuetan hutsuneak ere badituzte.

Sopuertako jaialdian Gwendal dago iragarrita. Oroimina bilakatu al da zaleen motibazio nagusi?

Oroi-mina batzuetan gozoa da, Gwendalen kasuan apur bat kutrea ere bai, baina bestetik modak daude eta kontzertu erraldoietara joaten diren askok urtean zehar zuzeneko musikarik ez du ia kontsumitzen.

Ontzi espazialean planeta berria populatzera euskal musikaririk bidali behar izatekotan, nor?

Lekurik balego batzuk gonbidatuko nituzke: Mikel Laboa beti, Ruper mugalari batzuekin, bide berean beste bi Trukuak ere bai, baita Muguruzatarrak, eta agian beste frankotiratzaile batzuk, ez dakit, Txuma, Josu Zabala, Montoia, Rafa Rueda, Anari, Petti... Denok batera *I shall be released* abestu dezatela. ■